



SUDUR-GARBIKETA RHINODOUCHE® GAILUAREKIN

Sudur-garbiketa laguntza handikoa da sudurreko kirurgia edo kirurgia sinusala egin eta gero. Sudur-garbiketaren bitartez, koaguluak, mukiak eta zarakarrak kentzen dira, eta horri esker behar bezala orbaintzen da zauria eta lehenago oneritzen da sudurreko mukosaren funtzioa.

Merkatuan hainbat sistema daude sudur-garbiketa egiteko. RHINODOUCHE® da horietako bat, eta farmazian eros daiteke. Paketean, gailuaz gain, SinuSal XL produktuaren 5 zorrotxo ere badaude, sudurreko irrigazioetarako gatz-soluzio espezifiko bat egiteko.

Egunean hiru aldiz egin behar dituzu sudur-garbiketak, hurrengo azterketa-egunera arte, honela:

GATZ-SOLUZIOA PRESTATzea

Bota SINUSAL XL® zorro baten edukia botilaren barrura. Gehitu ur epel apur bat, iturrikoa (35-39 °C). Eragin botilari, nahasteko.


Bete botila leporaino ur epelez eta jarri sudurrera egokitzeko tapoia.



RHINODOUCHE® APLIKATzea

Makurtu aurrerantz konketaren gainean. Sartu sudurreko konoa zuloetako batean, leun baina etengabe sakatuz barrurantz. **Ahotik hartu arnasa.**

Sakatu botila leunki erdialdean. Likidoa sudur barrurantz ponpatuko da eta beste zulotik ateratzen hasiko da, eta berekin eramango ditu mukiak, zikinkeriak eta abar.



SUDURZULOA ALDATzea

10-20 segundoz irrigatu. Eskua aldatu eta beste zulotik egin irrigazioa.

Egin berriro aurreko urratsak, zulo batetik bestera aldatuz, soluzioa agortu arte.